

BABESA hiriko hegoaldeko auzo-elkarteen eta kontzejuen GASTEIZ HEGOALDEKO MUGIKORTASUNARI BURUZKO ADIERAZPENARI

_____ elkartean jaso dugu gure babesa eskatzen duen hiriaren hegoaldeko auzo-elkarteen eta kontzejuen MUGIKORTASUNA GASTEIZKO HEGOALDEAN adierazpen-dokumentua.

Gutun honen bidez, adierazten dugu bat gatozela honako hauekin:

- **Elkarte eta kontzeju horiek agertutako kezka, trafikoa murriztu beharrean inguruko trafikoaren arintasuna hobetzeko udalak gauzatutako jarduketek inguruan bizi diren pertsonengan izan duten eraginagatik.**
- **Erabakita dauden edo aztertzen ari diren beste esku-hartze batzuen ondoriozko ziurgabetasuna**, besteak beste honako esku-hartze hauen ondoriozkoa: Iturritxu-Zumabide-Maite Zuñiga ardatza bikoiztea, Zabalgararako tranbia-lineako garajeak Aretxabaleta inguruan jartzea edo paisaia eta herritar guztiena den ondasun ekologiko bat kaltetuko lukeen hegoaldeko ingurabide bat eraikitzea
- **Inguruan bizi direnen egoera oker dezaketen presazko jarduketarik ez gauzatzeko eskaera.**

Adierazpena izenpetu duten auzo-elkarte eta kontzejuek ezartzen diren neurrien inguruan egindako honako **eskaera hauek babesten ditugu:**

1. Auto partikularra gehiago erabiltzea ez erraztea. Eta horretarako:

- Garraio publikoa sustatzea eta hobetzea, bai hirian, bai inguruko herrietan.
- Industrialdeetarako garraio publikoa hobetzea.
- Inguruko ikastetxeetara iristeko bizikleta eta MPlak gehiago erabiltzea sustatzea.
- Bizikletetarako eta MPlarako azpiegitura egoki bat sortzea.

2. Informazioa emateko modua hobetzea eta herritarrei parte hartzeko aukera ematea beti inguru horretarako eta hiriko beste edozeinetarako mugikortasun-irtenbideak bilatzeko orduan. Alegia:

- Harreman arina izan dadila inguruko elkarteekin eta kontzejuekin, dauzkaten kezkak entzunez eta erantzun egokia emanez.
- Gardentasuna bermatu dadila, udalarekiko zuzeneko informazio-kanal baten bidez, informazio guztia jasotzeko, eta, horrela, inguru horretan eragina duten mugikortasun-gaiei buruzko iritzia ematean, ezagutza eta datu objektiboak oinarri hartuta parte hartu ahal izan dezaten.
- Ingururako mugikortasun-alternatibak bilatu, baloratu eta erabakitzean herritarrek benetan parte hartzeko aukera izan dezatela.

Gasteiz, 202_ko _____aren _____(e)(a)n

Sinadura eta zigilua